



AURRERA JARRAITZEN DUGU

Krisi ekonomikoak gure artean jarraitzen du aurten ere.

Gizarte Zerbitzuen arloan murrizketak izan dira nagusi, eta, halaber, eragina izan dute gure Federazioaren jardueretan.

Murrizketan ondorioak arintzeko, Elkarte Federatuen laguntzak izan ditugu —elkarte horiek ere murrizketak jasan dituzte—, baita gutako guztien lana eta borondate ona ere.

Hori dela-eta, itxaropena eman digu hartu duten konpromisoa —Eusko Jaurlaritzako Gizarte Politiken Saileko Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzarena—, 2014ako (eta hortik aurrerako) egunero-egunero jardun ahal izateko Lankidetzaren Hitzarmena sinatzeko; horri esker, ez dugu diru-laguntzak eman arte itxaron behar izango.

Urtearen hasieran ekitaldirako zer ekarpen ekonomiko jasoko dugun ezagutzuz, gure energia guztia ditugun helburuak lortzera bideratu ahal izango dugu: ume gorren eta senideetan oinarritutakoak, hain zuzen.

2014. urte zoriontsua izan!

A
L
D
I
Z
K
A
R
I
A

E
H
E
G
O
L
G
U
F

EUSKAL HERRIKO GORREN LAGUN ETA GURASOEN
ELKARTEEN FEDERAKUNDEA

FEVAPASEN 2013KO PROGRAMA

GIZARTERATZEKO JARDUERAK Aisialdirako hezkuntza programak/ Euskadin entzuteko desgaitasuna duten hurrei eta gazteei zuzenduta.

* Maiatzaren 24tik 26ra, entzuteko desgaitasuna duten eta entzuten duten 28 neska-mutilek Elgoibarren (Gipuzkoa) egindako jardueretan eta dinamiketan parte hartu zuten.



* Ekainaren 25etik 28ra, zenbait gazte Zuhatzako Irlan bildu ziren aisialdiko jarduerak elkarrekin egiteko eta bizitzako esperientziak ezagutarazteko.

* Uztaileko 1etik 10era, 7 eta 14 urte bitarteko zenbait neska-mutil (gor zein entzule), Aranatzan (Nafarroa) izan ziren eta mota askotako jarduera, tailer eta jolas burutu zituzten.

Federazioko gazteen taldearen eta Bielorrusiako 15 gorren bisita izan zuten. Aurten ere, esperientzia ona eta polita izan zen



BOLUNTARIOAK - Monitorea Aipatutako jarduera horiek guztiak ezingo genituzkeen egin elkarte federatuetan eta Fevapasen ditugun monitore boluntarioen lanagatik eta lankidetzagatik ez balitz.

BALOREETARAKO JOLASTU / Balioetan heztea - KULTUR ARTEKOTASUNA

Monitorea trebatzeko ikastaroaren titulua da. Ikastaro hori azaroaren 16an Bilboko Ulertuzeko lokaletan egin zen. 13 pertsonak hartu zuten parte (gorrak eta gor ez direnak).

Urtxintxa Eskolako bi langilek ikastaroa eman zuten eta zeinu-mintzairako interprete biek ikastaroa zeinu-mintzairan interpretatu zuten.



FAMILIA-PROGRAMA

Aurten ere FEVAPASEk Elkarte Federatuak koordinatu ditu, familiei arreta egiteko eta laguntzeko lana batera egiteko. Senideen eta desgaitasuna dutenen **BIZI KALITATEA HOBETZEKO**, ondoko lan koordinatua egin da: - Orientazioa eta Informazio eguneratu, zuzen, zabal eta zehatza eman. - Laguntza psikologiko eta emozionala eman eta, - Familiei informazioa eta prestakuntza eskaini. **Hori guztia ondokoen bidez:** - Arreta zuzena eta kasu bakoitzaren jarraipena eginez - Banakako eskaintzak kudeatuz - Gurasoetatik gurasoenganako laguntza emanez - Hausnarketarako eta prestakuntzarako taldeen bidez - Laguntza psikologikoaren bidez - Familien arteko topaketak eginez - Gizarteratzeko jarduerak eginez - Aldizka profesionalen arteko koordinazioa eginez (otorrinologologoak, audioprotesistak, logopedak, hezitzaileak, etab.) - Informatzeko eta prestatzeko hitzaldiak antolatuz - Sentsibilizatze jarduerak burutuz etab.ez.

Fevapas INFORMAZIOA

13.11.11 - OSAKIDETZA ETA Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko arduradunekin egindako bilera
ABIAN DA Haurren Gortasuna Goiz Diagnostikatzeko Programa berria
ARAZOAK informatika-sistemarekin, Datuak modu egokia, eraginkorrean eta fidagarrian biltzeko

Aurretik, maiatzaren 13an, Osasun Antolaketa eta Planifikazio zuzendari berriarekin bilera egin genuen. Zuzendariari, zein egoeratan gauden eta Sail horretako teknikari eta arduradunekin zein gai lantzen ditugun jakinarazi genion.

FEVAPAS EUSKO LEGEBILTZARREAN

Abenduaren 17an agerraldia burutu genuen Eusko Legebiltzarreko Lanaren eta Gizarte Politiken Batzordean

Hogei minutuz, taldearen egoera zein den eta zer behar dituen azaldu genuen.

Halaber, legebiltzarkideek egindako galderei erantzun genizkien.

FEVAPAS EDEKAN

EDEKAN lan egiten jarraitzen dugu —Desgaitasunaren inguruko beste entitate batzuetako kideekin batera— gure ESKUBIDEEN alde.

Hileko bileretan, batzorde sektorialetan eta gaiarekin lotutako beste sektore batzuetan parte hartuz.

13.11.19 EUSKO JAURLARITZAKO GIZARTE POLITIKAKO SAILBURUORDEAREKIN ETA GIZARTE ZERBITZUEN ZUZENDARIAREKIN EGINDAKO BILERA
HITZARMENA egitea proposatu zuten FEVAPASen lan egiten jarraitu ahal izateko.

13.11.27KO BILERA

EUSKO JAURLARITZA
Ikasle gorren jarraipenerako BATZORDEA
Hezkuntza Berrikuntzako teknikariek eta arduradunek, 2013-2014 ikasturtean entzuteko ezintasuna duten ikasleei buruzko datuak azaldu zituzten.
Familiek eskolan diren neska-mutil horien inguruko zalantzak, arazoak eta beharrak azaldu zituzten.
Hezkuntza Berrikuntzako zuzendari berria ezagutu genuen

ARARTEKOk teknikaiekin bildu ginen otsailean, apirilean, ekainean eta azaroan Osasun eta Hezkuntza arloko gaien inguruan jarraipena egiteko, baita erakunde horrek egin dituen azterketen berri izateko ere.

FEVAPAS HEMEN..



13.09.05 Bilbo- EJKO Hezkuntzako Jardunaldia-
"Ikasle gorra hizkuntzen Curriculumera: Haur Hezkuntza, Oinarrizko Hezkuntza eta Batxilergoa"



13/10/08, 16, 17, 24, 30 Aizan Elkartearen
Trebakuntza Tailerra Gasteizen.
"Gizarteratzeko esparruan Berdintasunarekin
lotutako"

13.10.14 Bilbon X Foro Fekoor
"Emakumea eta Desgaitasuna"

13.11.15 Bilbon VI. Fekoor Jardunaldia
"Herstura politikak epaitzea"



13.11.28 Gasteizen, AFAko GOFeren jardunaldia
"Etika eta Gizarte Zerbitzuak"

13.11.29 Bilbon 2013ko EDEKA JARDUNALDIA
"EU 2020, desgaitasuna duten pertsonen
erronkak eta etorkizuna"



ELKARTE FEDERATUETAN



IRAKURKETA ETA IDAZKETA TAILERRA

NORENTZAT: entzuteko desgaitasuna duten
8 eta 14 urte bitarteko harrentzat, 3 eta 7
urte bitarteko haurrentzat eta beraien
senideentzat.

HELBURUAK: Irakurketarekiko interesa
hobetzea / entzumen aktiboa, ideien eta
emozioen adierazpena, elkarrizketa eta
komunikazioa sustatzea / sormen
gaitasunak sendotzea

JARDUERAK: Liburutegiak ezagutu eta
erabiltzen ikasi / Liburu batzuk irakurri /
Filmak / Ipuin-kontalariak / Bisita
gidatuak etab.

EGUNAK: 2013ko azarotik 2014ko
ekainera / Hilean bi egun

JAIALDI SOLIDARIOA

Urriaren 31n arratsaldean TWESTIVAL JAIALDI
SOLIDARIOA egin zen. KITXUNEK antolatu zuen.

HELBURUA, Ulertuz elkarerako dirua biltzea zen (571
euro bildu ziren).

JARDUERAK: Musika-kontzertuak eta Bilboko merkata-
riek emandako zenbait produktuen tonbola egin zen.
Talde guztiak doan hartu zuten parte.

PARTE-HARTZAILEAK: langileak, Batzarreko ordezkari
asko, erakundeko bazkide eta lagun asko eta musika-
taldeen gazte jarraitzaile batzuk.

*Eskerrik asko musika-taldeei eta Kitxuneri gure
elkarteari laguntzeko egin duten ahaleginagatik.*



URTE AMAIERAKO IRTEERA

Abenduaren 14an, larunbata.
Kursaalera eta Donostiako Aquariumera IRTEERA

NORENTZAT: 4 eta 14 urte bitarteko haurrentzat
Parte-hartzaileen gurasoak gonbidatuta daude.

HELBURUA, urtea gizarteratzeko josteta eta kultura jarduera
batekin amaitzea, haurrek eta gurasoek elkarrekin burutu
beharrekoa.

JARDUERAK: Kursoaleko Kuboan dagoen "El Paso" pintura-
erakusketarako bisita gidatu eta egokitua eta hiriko
Aquariumerako bisita.



LAGUNTAILEAK



ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza
Familia eta Komunitatea Politikarako